

HERNANI BHI

# Institutua


DBH 1-2

● / 2013-V-9 osteguna /

HERNANIKO LURRALDEA BAILARA ZABALA ZEN AINTZINAN

## Hernaniko Historia

EGILEAK  
// III Eider Tolosa



“DONOSTIARRAKO ENTRENATZAILEA”

### Kluba ikustaraztea zen helburu nagusia

“ZE TALDE NAHIAGO DUZU  
HERNANI ALA DONOSTIARRA?”

// II

“ISTORIO LABURRA”

### Aitor eta ikastola



// III

EGILEAK  
Garikoitz Mujika

### Hernani geroz eta gertuago

EGILEAK  
Xuban Balda  
Jon Bergaretxe  
Julen Labaka  
// II



### Ahaztezina izan da bidai hau

// IV

EGILEAK  
Andrea Gallego  
Uxue Encinas

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## INSTITUTUA DBH 1-2

XABIER ZABALA - DONOSTIARRAKO ENTRENATZAILEA:

# «Kluba ikustaraztea zen helburu nagusia»

Xabier Zabala Hernaniko eta Donostiarrako entrenatzailea da eta Hernanin arraunaren alde lan asko egin du.

### Nola iritsi zinen Hernaniko arraun elkartera?

Klubean adiskide bat nuen eta esan zidan kluba desagertzen ari zela eta berpizteko asmoarekin niri deitu zidan.

### Lortu al dituzu 2013rako finkatuta zenituen helburuak?

Bai, kluba ikustaraztea zen helburuetako bat eta batipat, lortutako garaipenekin lortu dugu.

### Ze talde nahiago duzu hernani

### ala donostiarra?

Biak ditut gustoko baina oso lan ezberdinak ditut talde bakoitzean. Hernanin gazteekin aritzen nahiz eta donostiarran berriz zaharragoekin beraz ezberdintasun handiak daude.

### Zure ustez zein da arraulari batek lor dezakeen titulu garrantzitsuenak? Zergatik?

Traineruetan argi dago arraulari guztien ametsa Kontxako Bandera irabaz-

tea da nahiz eta oso gutxik lortu.

### Non ikusten duzu zure burua emendik 5 urtera?

Berdin ikusten dut baina agian beste klubetako batek traineruetako entrenatzaile izateko eskaintza pentsatu dezaket.

### Zer moduz sentitzen zara Hernaniko arraun elkarteko arraunlariekin?

Umeak umeak dira jajaja eta beraz pazientzia asko eduki

beharra dago, hala ere oso gustura sentitzen nahiz.

### Gertatu al da espero ez zenuen zerbait klubean?

Klubean gauza asko pasa dira azken urte honetan besteak beste, autobusa lortu dugu entrenamentu eta estropadetarako, eta bestaldek AHTaren ondorioz klub berri bat eraikitzen ari dira eta bertan elkarte bat egongo da eta honek jendea erakarriko du.

## Hernani geroz eta gertuago

Hernaniarrak play-off etan sartzeko zorian, aurkari zuzenen aurka jolasteko faltan.

Hernaniko futol taldea geroz eta gertuago dago play-offetan sartzeko, azken bost partidatan bi berdinketa, bi garaipen eta porrot bat izan dituzte berdeek. Honek hurrengo Real Unionen aurka du larunbatean arratsaldeko 16:30etan Zubipen. Bere partida bukatzerakoan Oartzunek zer egingo duen zain egongo da. Oartzun dakizuen bezala lehenengo doa, Hernaniren aurretik.

Hernanik Zubipen 3-1 irabazi zion, baina Oartzunen Hernanik 3-0 galdu zuen. Hernaniri hiru partidu falta zaizkio liga amaitzeko eta horietako bi nahiko aurkari zuzenak dira. Eta hauexek dira taldeak: Real Union Club Sad, Urola eta

Hernanik Real Unionen aurka

jokatuko du larunbatean,

16:30etan, Zubipen.

Bukatzean, Oartzunek zer egin

zain egongo dira.

Berio. Hemendik amaiera arteko txanpa oso zaila izango da, eta espero dugu hirugarren mailara igotzea.

EGILEAK

Xuban Balda, Jon Bergaretxe eta Julen Labaka



Hernanik Real Union, Urola eta Berio izango ditu aurkari, datozen asteetan.

53  
zenbakia

euskara  
ari du

# Hernaniko bailarak 5 herri hartzen zituen

Hernaniko lurraldea bailara zabala zen aintzina, Urumea eta Oria ibaien arteko lurrak hartzen zituen: gaur egungo Donostia, Urunieta, Lasarte, Usurbil eta Orio.

Antzina, Hernaniko bailara lurralde zabala zen eta Urumea eta Oria ibaien arteko lurra hartzen zuen: gaur egungo Donostiako, Urnietako, Hernaniko, Lasarteko, Usurbilgo eta Orioko udalerriak.

Izendapen geografiko gisa, Hernani 1014. urtean agertu zen lehen aldiz dokumentu batean. XIII. mendearen erdialdean eman zioten hiribildu-titulua, fundazio-gutuna gorde ez bada ere, Gaztelako erresumak, 1200. urtean Nafarroako lur eremu batzuk konkistatu ondoren, eramaten zituen konkista eta espansionismo politika-ren testuinguruan.

1332. urtean, ordea, Hernanik bere hiri-gutuna edo fundazio-dokumentua galdu zuen, zehazkiago, bando oinaztarreko kideak herrian errefuxiatu ondoren gertatu ziren borrokaldien garaian, ahaide nagusien arteko borroken testuinguruan. Hernaniko ordezkariak azalpen hori eman zuten 1491n, Batzar Nagusien bilera batean, eta herriak su hartu zuela eta ondorioz guztiz suntsitu zela erantsi zuten.

Lehen Udal Ordenantzak 1542koak dira, eta 1512an Nafarroako Erresumaren konkistaren garaian herria berriz ere suntsitu ondoren desagertutako ordenantzen

kopia dira. Horrelakoak lehenago ere gertatu ziren, hain zuzen ere Erdi Aroan, ahaide nagusien arteko gerretan edo bandoen arteko gerretan, eta aurrerantzean ere gertatu dira: XVII.-XVIII. mendeetan, XIX. mendeko karlistaldietan eta 1936ko gerran.

Hernaniko gizarteak bizitasun handia erakutsi du bere historia luzean zehar. XX. mendearen hasieran Hernanik industria eta biztanle garapen handia izan zuen, eta horren ondorioz gaur egungo Hernani sortu zen.

EGILEAK  
Eider Tolosa



Hernaniko Udaletxea eta eliza.

-gaur egungo gazteak



EGILEAK: Jon Ander Das neves ja Unai Gragera

## Aitor eta ikastola

Bazen behin haur bat, Aitor izena zuena eta Hernanin bizi zena. Ez zen ikastolara joaten. Eguna etxean pasatzen zuen play station-ean jolastan, eta lotan.

Behin, asko jolastan zuelako, konfiskatu egin zioten play-a. Oso aspertua zegoen eta liburu bat irakurtzen hasi zen. Baina ez zekienez irakurtzen, ez zelako ikastolara joaten, aitari eskatu zion irakurtzeko. Liburua euskal mitologiari buruzkoa zen eta lamia bat agertzen zen portadan. Nahi gabe, liburua margotu zuen arkatzarekin. Elkar dendara joatean ilara luzea zegoen. Borragoma erosi eta etxera bueltatu zen. Liburua borratu ondoren, aitak ipuina irakurri zion: Ehiztari batek tiro bat bota ziolako lamia bat odoletan hasi zen. Aitorri pena izugarria eman zion eta negarrez hasi zen. Liburua busti zuela esan zion aitari. Hurrengo egunean, erabaki zuen ikastolara joan nahi zuela

hurrengo kurtsoan eta aitak galdetu zion:

-Zergatik joan nahi duzu ikastolara?

-Irakurtzen ikasteko erantzun zion Aitorrek.

-Bale, izena emango dut ikastolan - Gehitu zuen aitak.

Udararen bukaeran, aitak izena eman zuen. Lehenengo eskola egunean lotsa pixka bat zuen.

Kurtso bukaeran, irakurtzen ikasi zuenean, liburu bat oparitu zioten. Aitari frogatu zion bazekiela irakurtzen eta beste liburu bat oparitu zioten. Ikastolan hurrengo urtean Matematika ikasi zuen. Hirugarren mailan Gaztelania ikasi zuen, baita Ingurune ere, eta gainera Euskara praktikatu zuen. Eta aitak Playa itzuli zion Aitorri eta zoriontsu bizi izan ziren. Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Hernaniko plazan.

EGILEA  
Garikoitz Mujika (DBH 1)

53

zenbakia

ikasleen txokoa

# «Ahaztezina izan da bidai hau»

Apirilaren 9an asteartea, goizeko bederatzietan, DBH bigarreneko ikasleak autobusa hartu genuen Bartzelonarantz.

Zazpi orduko bidaia bukatu ondoren, Montjuiceko estadio olinpikoa ezagutu genuen. Eta eguna bukatzeko hotelerantz abiatu ginen.

Asteazkenean, Auzo Gotikoko katedrala ikusi genuen eta ondoren, Sagrada Familiarutz abiatu ginen. «Inpresionatu egin gintuen, handia baitzen eta detaile asko baitzitu». Arratsalde osoa, Parc Güell-en igaro

genuen.

Ostegunean, Port Aventura joan ginen. «Gehien gustatu zitzaizkigunak Shambhala eta Stampida izan ziren. Oso ondo pasa genuen han».

Azken egunean, Ranelletan egon ginen. Han, denbora libre utzi ziguten beste hainbat tokitan bezala.

Jende asko ikusi genuen eta batzuen lagun egin ginen.

«Bartzelonan, oso ondo pasa genuen!! Ahaztezina izango da bidaia hau».

EGILEAK

Andrea Gallego eta Uxue Encinas



Andrea Gallego eta Uxue Encinas, Bartzelonan.

Ikasleen Txokoa - 53 zk.

**INSTITUTUA DBH 1-2**

EGILEAK:

